

2012ko abuztuaren 8a

Euskal Herriko gizarteari Iosu Uribetxebarria Bolinaga Euskal Preso Politikoaren partetik.

Ohar honen bidez atzo gertatu zena eta ondorioz nik hartutako erabakiaren berri eman nahi dizuet.

Atzoko eguna berezi xamarra izan zen proba bat egin behar nindutelako. Niretzat garrantzia handikoa zen ondo gainditzea aurrera egin eta hurrengoko proban murgilduta egoteko.

Esan behar da hasiera poliziaren tratua orokoran etzela okerra izan, hori bai, batzuekin hobeto beste batzuekin baino. Nik senideekin egotea nahi nuen eta arazoak ekiditzeko, ez nien garrantzirik eman batzuen itxikeriei. Baina gauzak okertzen joan dira poliki-poliki.

Ordurarte senide eta lagunek binaka sartzea zuten nirekin egoteko. Atzo banan-banan sartu behar zirela esan ziguten. "Nosotros somos los que dictamos las normas". Lagun batzuek zalantzak zituzten zerrenda zein izango ote zen. Poliziari zerrenda erakusteko eskatu eta polizia ukatu egin zen. Nire asmoa, gaur TAC-a eta puntzoia egitea zen eta egoera hori konpontzen saiatzea zen nola edo hala.

Denborarik ez. Gauean ohera sartzerakoan indarrak berreskuratzeko, betiko bezala leihoa zabaldu nuen gela aireatzeko ta freskatzeko.(Barroteak ditut leihoan) Ordura arte arazorik gabe egindakoa arazo bihurtu zen, Polizia batek leihoa itxita egon behar zuela agindu zuen. Saiatu nintzen azaltzen barroteak zeudela eta

abar, baina alperrik .“usted no me va a decir a mi lo que tengo que hacer, la seguridad la llevo yo”-ren moduko zerbait esan zidan.

Horrela izan da ere, berriz saiatu nitzen gauzak bideratzen, baina alperrik. Argumentu falta ta, que no le amenace y que no le levante la mano” esan zidan inongo mehatxurik egon ez denean eta eskuarekin leihoa seinalatzeko keinua egin nuenean soilik.

Horrelako jarrera itxiaren aurrean, gelan daukadan txirrinara erabiliz erizaina deitu nuen, bertara etorri eta gertatutakoa azaltzeko. Berak ezin bazuen konpondu ere, arduradunari edo sendagileari esateko ea biderik bazegoen hau konpontzeko.

Ikuskatzailea etori zen, baina ezer gutxi egin ahal izan zuen. Berak ulertzen nauela, baina bere konpetentzia ez dela. Azken gertaera honen ondoren eta nire egoera orokorra ikusita, esan nion ez nuela proba egingo (TAC eta puntzoia) eta gose greban hasten nintzela, nahiz eta jakin nire egoeran egonda ez dudala egun asko iraungo.

Ez dut ezer berezirik eskatzen, tratu justu bat soilik nire egoera kontutan hartuta. Egoera honetan nagoela, nola onartuko dut tratu izugarriak nire senideekiko, ez da posible!

Beraz gaur, abuztuaren 8<sup>a</sup>, 00:00 orduetatik, **gose greban jartzen naiz, alde batetik hemen azaltzen dudanagatik eta garrantzitsuena nire ustez, gobernu espainolak luzatzen dabilelako egoera onartezin hau krudelkeria eta gorrotoa muturreraino eramanez. Hamalau gaixo larri kartzelan mantentzea hiltzeko korredore kartzelarioan onartezina da. Gaixo larriak etxera!**

Azpimarratzea nahi dut ospitaleko sendagileen aldetik, erizainen aldetik, erizaintzako laguntzaileen aldetik eta oro har langileen aldetik, laguntza eta animoak jaso ditudala une oro. Alde horretatik primeran. Agian ospitaleko zuzendaritzatik inplikazio gehiago espero nezakeen, sortutako arazoan aurrean.

Bukatzeko jaun-andreak, neska-mutilak, eutsi bide honi, eguneroko minimoak betetzen (bakoitzak bere ale ondarra jarriz) gatazka hau behingoz konpontzeko. Errespetuz eta tolerantziaz gero eta lagun gehiago izanez, konponbidea gelditu ezina bilakatuko da berdintasuna eta elkartasuna.

**GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!**

**GORA EUSKAL LANGILERIA!**

**AURRERA BOLIE!!!**

**IZUGARRI MAITE ZAITUZTET, "A RABIAR"!**

Mila esker zuen eskuzabaltasunagatik.

**Ikusi arte lagunak!!!**